

NEUROKAPITALISMOA



LARRUN #242

LAN EGIN, BIZI, KONTSUMITU DATUEN ETA PANTAILEN AROAN

EGILEA | **GORKA BEREZIARTUA MITXELENA**
AZALA | **JOSEBA LARRATXE JOSEVISKY**
ARGAZKIAK | **DANI BLANCO**

Eredu produktibo bat da. Historiaren une honetan kapitalismoak jantzi duen azken maskara. Ideologia bat ere bai, etenik gabe errepikatzen dena negozioak nola egin erakusten duten unibertsitateetan, enpresei aholku ematen aritzen diren bulegoetan, ekintzailletza eta enpresa-sorkuntzari buruz nonahi antolatzen diren jardunaldietan. Eta, batez ere, leku guztietako agintariek besarkatu duten masta da, azken hamarkadako ekonomiaren itsaso zakarrak zeharkatu ostean

India berriak agertuko direlakoan. “Iraultza digitala” deitu izan diote. Baita Laugarren Industria Iraultza ere. Eta bitxia da zeren, iraultza bat izateko, inor gutxi sentitzen da askatuta ekartzen ari denarekin. Bakardadea eta indibidualismo erradikala. Eta estresa –alegia, estres gehiago–, denbora falta, etengabe konektatuta egon beharra, emozioen polarizazioa, paradigma kultural berriak. Gehiago kontsumitzea. Gehiagotan kontsumitua izatea. Ez da iraultza, beste izen bat merezi du: neurokapitalismoa da.


LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA · ARGIAren 2.645 zenbakiarekin banatua.

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

POSTA ELEKTRONIKOA: LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2019ko maiatzaren 26a

Ez zara zu, zure lan-indarra da



Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Politika sozialetarako sailburua ari da hizketan. Bilbo, 2019ko maiatzaren 8a: “Iraultza digitalarekin eta produkzio-formen aldaketarekin aukerak sortuko dira ekiten duten eta tendentzia berriak sumatzen dakiten gazteentzat”. Agerraldi aspergarri samarra da Laboral Kutxaren Gaztenpresa fundazioaren iazko emaitzak ezagutarazteko antolatuta duten hau. Betiko lexiko *entrepreneur* hori. Beste buelta bat zartaginean dirua irabazteko esparru digitalak eskaintzen dituen aukerei, alegia, *bussiness*-aren tendentziaz aritzen diren traje guzti-guzti-guztiak azken urteotan errepikatzen dutena, kasu honetan kargu publiko baten ahotan.

Behintzat badirudi sailburuak ikasi duela lezioa: 2017an Ser irratikateari eskainitako elkarrizketa batean esan zuen hilean 600 euro kobratzeak bizimodu duina ziurtatzen duela. Eta sareak sutan jarri ziren –iraultza digitalak hori ere ekarri baitu–. Ez da harritzekoa, kontuan izanda Hego Euskal Herrian pobrezia-aren muga hilabeteko 1.059,30 euroan dagoela Elkartzenen arabera. Ez da harritzekoa, batez ere, gero jakin zelako sailburuaren urteko soldata 87.000 eurokoa dela. Baina ikasi du: geroztik ez du egin titular bakar bat merezi izan duen adierazpenik.

Kontua ez baita arreta deitzea, ideiak hobeto inokulatzen baitira mantra monotonoen bidez. Errepikatzen dituen enpresagintza eskolako topikoen artean, esaldi hau: “Gazte batek garatzen duen ekintzailtza-lan horrek ez du balio bakarrik bere kabuz lan egiteko; balio du garapen pertsonalerako aukera gisa ere”. Enplegua sortzeaz bakarrik ez, Araba, Bizkaia

**GAUR EGUN INDARREAN
SARTZEN ARI DEN EREDU
EKONOMIKOAK ERABAT
LAUSOTZEN DU PERTSONEN
LAN-ESPARRUA ETA HAIEN
BIZITZA PRIBATUA BEREIZTEN
ZITUEN MARRA**

eta Gipuzkoako gazteen “garapen pertsonalaz” ere arduratzen da orain Eusko Jaurlaritzak?

Esaldiak ez du eskandalurik eragiten, lanaren kultura jakin batek pisu handia baitu herri honetan, horrelako baieztapenak bateragarri egiten dituena enplegua orain arte ulertu izan dugun moduarekin. Baina sarera konektatutako te-

lefonoen aroan, lanaren eta bizitza pertsonalaren arteko gurutzaketan egosten ari den transformazioari gertuagotik erreparatu behar zaio. Eta lupa pixka batekin, Artolazabalek dioena lotuago agertzen da teknologia digitalen eskutik nagusitzen ari den eredu-produktiboaren berrantolaketarekin, baita hura justifikatzeko zabaldu diren diskurtsoekin ere. Izan ere, badirudi gaur egun indarrean sartzen ari den eredu ekonomikoarentzat ez dela aski langileek lan egitea. Beste eremu batzuetan ere maila eman behar dute. Lars Distelhorst-ek *Bonbilla eta mudantzatan lan egiten duen mutila* artikuluan esplikatzeko duen moduan¹ langileari “pertsonek hobea” bihurtzea ere eskatzen zaio, orain arte gainditzen ez zen marra gorriaren gainetik salto eginez: pertsona baten eremu pribatua eta haren lan-esparrua desberdintzen zituen lerroa.

Pertsonen bizitzak oso-osorik ekoizpenerako mobilizatu nahi dituen prozesua bizitzen ari gara, aurreko eredu-produktiboetan ezagutu ez dugun exigentzia-maila batekin, azken bi mendeetako industriek tarte handiagoa uzten baitzuten pertsona eta haren lan-indarra desberdintzeko.

Zertan datza desberdintasun hori? Karl Marxek esplikatzeko duen moduan², inork ezin du bere lana saldu,

¹ *La sociedad del rendimiento* liburuan jasota dago. (Askoren artean, Katakarak, 2018).

² *Idazlan hautatuak*, Karl Marx (Pentsamenduaren Klasikoak, 2004).



WIKIMEDIA COMMONS

FORD AUTOMOBILAK MUNTATZEKO KATEA 1913AN. XX. MENDEKO EKOIZPEN EREDUAN LANGILEAK ZEREGIN ERREPIKAKOR ETA MEKANIKOAK EGITERA BEHARTUTA ZEUDEN. EREDU PRODUKTIBO HORREK, AUTOEZ GAIN, GIZARTE MOTA JAKIN BAT ERE EKOIZTU ZUEN.

saltzen duena bere lan egiteko gaitasuna da. Gaitasun hori da merkantzia bihurtzen dena, salerosi daitekeen beste edozein gauza bezala –alde batekin: plusbalioa ekoizteko gaitasuna daukala–, eta hortaz, posible da hari prezio bat jartzea; baita ere, hitz egin nahi dugun gaira etorri, argi eta garbi zedarritzea zer den merkaturatutako lan-indarra eta zer ez. Baina herrialde garatueta konplikatu ari da bereiztea pertsona baten ze gaitasun diren aproposak lan-merkatuan saltzeko eta zein diren, kontrara, eremu pribatuari dagozkionak, pertsona horren ingurune sozialarekin eta etekin ekonomikorik bilatzen ez duten harremanekin lotutakoak. Inplementatu ari den ekoizpen-sistema digitalarentzat dena baita baliagarri, guztia esplotatu daiteke. Eta horren ondorioz, pertsona, bere osotasunean, lan-indarra beste-rik ez bihurtzeko arriskua dago.

1999ko *The Matrix* film distopikoak horrelako zerbait aurreikusten zuen: makinek gobernatutako mundu bat, zeinean gizakiak energia-iturri hutsa ziren, bateriak. Wachowski ahizpen

pelikulak bizitza guztiz birtualetan murgildutako gizateria baten amesgaiztoa aurreikusi zuen, artean internet gehienontzat gauza berri samarra zenean. Filmaren profetia iluna erabat bete ez den arren –oraingoz–, XVIII. mende amaierako lehen ehungailu mekanikotik 2007an merkaturatu zen aurreneko iPhone-ra aldaketa teknologikoen langileen esplotazio-baldintzak asko aldatu dituzte, unean uneko gizarteei forma emanez. XIX. mendean nagusitu zen ekoizpen eredu mekanizatuak, adibidez, posible egin zuen izaki bizidunen indar hutsarekin ezinezkoak ziren produkzio-kopurueta iristea. Baina horrek ez zuen mundu guztiarentzako oparotasun-aro baten hasiera ekarri, jendearen gehiengoaren zapalkuntza forma berri bat baizik: kapitalismo industrial, zeinean pertsonak derrigortuta zeuden jardunaldi amaigabeetan makinaren erritmo errepikakorrari jarraituz lan egitera, trukean jornal murriztu bat jasotzeko –beharbada Charles Chaplinen *Modern Times* filmak (1936) islatu zuen ekoizpen-eredu taylorista-fordista horren

espiritua beste inork baino hobeto; eta kasu hartan ez zen etorkizun ilun baten iragarpena, gertatzen ari zen zerbaiten errepresentazioa baizik–.

Bi mundu gerrak eta historian ordu-ra arte ezagututako krisi ekonomikorik latzenak –gehi hainbat herrialdetan eredu sozialistak garatzeak– karta banaketa berria ekarriko dute XX. mendeak aurrera egin ahala eta eredu kapitalista aurreratuen dagoen herrialdeetan, langile-masak kontsumitzaile-masa bihurtuko dira. Gizarte industrial zaharretik kontsumo-gizarte berrira pasatzean, produktuen ekoizpen prozesuan ere aldaketa fundamental bat gertatzen hasiko da. Enpresei euren langileen beste alderdi bat interesatzen hasiko zaie: ordutik aurrera, ekoizpen bitartekoen jabe direnek langileari ez diote bakarrik eskatuko bere lan-indar fisikoa sal dezala; haren buruan gertatzen denarengatik geroz eta jakin-min handiagoa erakutsiko dute: zer erosi nahi duen, zer premia asetzeko, zergatik. Aldaketa hori funtsezkoa da gaur erabat hedatzen ari den neurokapitalismoa ulertzeko.

Produzitu ezazu zure kontsumitzaile perfila



Giorgio Griziotti ikerlariak 2016ko *Neurocapitalismo. Mediazioni tecnologiche e linee di fuga* liburuan esplikatzen duen moduan³ 1960ko hamarkadatik 1980koaren hasierara bitartean, eredu fordista krisira eraman zuten aldi berean langilea eta masa-kontsumitzailea zen subjektu historikoaren borrokek⁴. Kapitalismoak Japonian aurkituko du bere burua berrasmatzeko formula: toyotismoa. Muntaia-kate automatizatuagoak; eskariaren neurria egokitutako ekoizpena, biltegi-gastuak ia zeroraino murrizten dituen *just in time* sistemaren bidez; produktu oso desberdinak kopuru txikietan fabrikatzea, merkatu zatikatu bati begira –eredu fordistak bultzatutako produktu bakarraren ekoizpen masiboaren kontrakoa, alegia–; eta, langileen zereginari dagokionez, aurretik ezagutu gabeko mugikortasuna –eredu honen ezarpenarekin batera bihurtuko da “malgutasuna” hitz fetitxea enpresa-jabeentzat–.

Funtzio desberdin ugari bete ditzakeen langilea eskatzen du fabrika berriak, gaur hau eta bihar hura egiteko gai dena; eta langile mota hori banaka-banaka kontratatzen da, ez masan, lan-indarraren konpo-

mendearen amaierarantz aurrera egin ahala, langileak tresna mekanikoen ordez pasatzen dira informazioa prozesatzen dutenekin lan egitera. Griziottik nabarmentzen duen moduan, aldaketa ez da nolana hikoia, softwareak derrigorrez eskatzen baitu beharginaren interakzioa. Interakzio behartua, batzuetan kitzikagarria izan daitekeena, baina bestetan guztiz haserregarria. Langileak aurreko makinekin zeukana baino harreman konplexuagoa da.

Beharginak tresna horietara ohi-tzen doazen bitartean, bulegoetan *Entreprise Resource Planning* (ERP) edo Enpresa Baliabideen Plangintzen⁵ aroa iritsi da: dena integratzen eta planifikatzen du enpresaren burmuinak, bai ekoizpen automatizatuko mekanikak, baina baita langileek fabrikazio-prozesuan egiten duten lan kognitiboa ere, orain, tresna informatikoei esker, erregistratu daitekeena, ondoren aztertzeke, ekoizpen-prozesu osoa etengabeko kontrol eta optimizazioan murgilduz. Enpresak nerbio-sistema bat

EKOIZPEN KOGNITIBOAREN AROA IRITSI DA ETA AURREKO EREDU PRODUKTIBOekin DUEN DIFERENTZIA ULERTZEKO, 180 GRADUKO PERSPEKTIBA ALDAKETA EGIN BEHAR DA

sizioa lehen baino heterogeneoagoa bihurtuz batetik; eta langileen arteko harremanetan kolektibotasunaren faktorea ahulduz, bestetik.

Gainera, bukatu dira Chaplinen “garai modernoak”. Oraindik makinak daude fabriketan, baina XX.

³ Neurokapitalismoa. Bitartekaritza teknologikoak eta ihes lerroak. 2017ko gaztelaniazko itzulpena erabili da artikulu hau osatzeko: *Neurocapitalismo. Mediaciones tecnológicas y líneas de fuga* (Melusina). Frantsesez ere eskura daiteke (*Neurocapitalisme. Pouvoirs numériques et multitudes*, C&F éditions, 2018), baita ingelesez ere (*Neurocapitalism. Technological Mediation and Vanishing Lines*, Minor Compositions, 2019).

⁴ Italiarra da Griziotti, eta herrialde hartan bereziki luzeak izan ziren 1968ko oihartzunak. Zenbait historialarik “Italiako 68 luzea” izenez ezagutzen dute 80ko hamarkadaraino iritsi zen borroka-zikloa. Beste herrialde batzuetan, 1973ko petrolioaren krisia izan zen eredu produktibo fordista aldatzeko inflexio-puntua.

⁵ Informazio gehiagorako, ikusi Wikipediako sarrera: https://eu.wikipedia.org/wiki/Enpresa_baliabideen_plangintza.

garatzen du, gogotik ustiatzen duena bere esanetara dauden pertsonen buru-lana ere, ahalik eta irabazi handienak lortzeko bidean.

Eta behin enpresa barruko lan kognitiboari etekina ateratzen hasita, denbora kontua baino ez da izango lantokiak ez diren tokietan ere antzeko zerbeit egiteko tentaldia agertzea. Azken finean, ehunka edo milaka langilek sortzen dituzten datuekin ekoizpena doitu eta irabaziak ugaritzen badira, mundu guztia datuak produzitzen jarriz gero,

korporazioek historian inoiz baino zehatzago jakin ahalko dute zer saldu, noiz saldu eta nori saldu.

Bidean, masa-kontsumitzailearen figura pikutara doa. Eta pikutara doa, era berean, ekoizlea eta kontsumitzailea bereizten dituen harresia ere: ekoizpen kognitiboaren aroa iritsi da eta aurreko fasearekin konparatzen badugu, 180 graduko perspektiba aldaketa egin beharra dago jokoaren arau berriak ulertuko badira. Orain helburua kontsumitzailea aktibatzea da

eta horretarako erreminta digitalak funtsezko tresnak dira. Ustez doa-koak diren zerbitzuen bidez, pertsona bakoitza bihurtzen da, kontzienteki ala inkontzienteki, bere kontsumitzaile-subjektibitatearen ekoizle. Eta arrastoak uzten ditu nonahi: zer egiten duen, non dabilen, zer interesatzen zaion, zer ez, zerk mugitzen dituen bere emozioak... Kontsumitzailea da, bai; baina produzitzen dituen datuen bidez etengabe itxura-aldatzen den kontsumitzaile bat. Indar produktiboa ere baden kontsumitzaile bat. "Prosumitzaile" bat, etengabe mugitzen dena eramateko kafeak estimulatuta, behin eta berriro harremanez, gustuz eta enpleguz aldatuz.

Subjektu horren posizio bereziak esplikatu dezake, akaso, zergatik jarraitzen dugun edukitzen sarera konentatutako telefono mugikor bat, 2013tik Edward Snowden CIA-ko eta NSA-ko lankide ohiak zabalduko informazioei esker mundu osoan egindako espioitza-lanen berri dugun arren. Zergatik konektatzen garen etengabe internetera pribatutasun-neurri berezirik hartu gabe, AEBetako inteligentzia zerbitzuek gain enpresa teknologiko erraldoiei ere gure bizitzak aztertze aukera emanez. Gizarte hiper-individualizatueta bizi gara eta kolektiboki eragin ahal izateko beharko genituzkeen ehundura sozialak geroz eta higituago daude; geroz eta tarte gutxiago daukagu funtsezko gaietan erabaki libreak hartzeko -non bizi, etxebizitza-eskubiderik bermatzen ez bada? Zertan lan egin, gehiengoarentzat langabezia edo prekarietatea besterik eskaintzen ez duen eredu ekonomikoan?--; galtzen ari garen askatasun guztien aurrean, kontsumitzeko posibilitateak dira ugaritze-fasean dauden bakarrak. Eta ez diegu aukera horiei muzin egin nahi, gure indibidualtasun hauskorrrak itxuratzeko dauzkagun bitartekoak direlako.





Neurokapitalismoaren eskutik etorri diren zenbait gailu, kontsumo eta ohitura




SMARTPHONE-A

Dudarik gabe, neurokapitalismoaren hedapenean gehien lagundu duen tresna da. 2000. hamarkadaren amaieran sarera konektatutako telefono mugikorren erabilera ugartzen hasi zenetik, ordura arte ezagutzen zen mundua goitik behera aldatzen hasi zen. Distiratsuak, edonora eramateko modukoak, edozein unetan erabiltzeko prest: tresna izugarri adiktiboak dira. Mundu guztian, klase, arraza, sexu, hizkuntza edo nazionalitateen gainetik telefono adimendunak bere legea inposatu du. Ia mundu guztiak dauka bat. Ia edozertarako erabiltzen da. Ia inork ez du gaur egungo bizimodua irudikatzen hura gabe.



ERAMATEKO KAFAEA

Kapitalismo psikikoak etengabe mugitzen diren langileak eskatzen ditu. Lan-jardunaldi amaiezinei bizirauteko gaitasuna daukaten langileak, uneoro esna, bizi eta sortzaile. Kafea da bizi-estilo horretan falta ezin den oinarrizko droga. Baina ez *fin de siècle*-ko tertulia paristarretan patxadaz hartzen zen kikarako kafe hori, langileak berarekin batera garraiatu dezakeena baizik. Kartoizko edalontzi batean edatea beste erre-mediatorik ez dagoen kafe bat, hasieran beti beroegi dagoena, plastiko baten zulotxotik edan behar dena. Mendetan gizateriak garatu duen kafearen kultura pikutara bidaltzen duen kafea. Zer inporta du: *cool* da.




SELFIE-A

Begira, ni naiz. Hemen. Eta hor. Eta han ere bai. Ni, nerau, neroni. Pozik nago, aurpegi arraroa jartzen dut. Hemen oporretan. Hemen lagunekin. Hemen betaurreko berriekin –ez dut jarriko zein markakoak diren zeren, oraindik ez didate horregatik pagatzen; pazientzia, etorriko da–. 2010eko hamarkadatik aurrera bihurtu ziren ohikoak auto-argazkiak egiteko aukera ematen zuten kamerak telefono mugikorretan. Eta sare sozialekin konbinatuta, irudiaren kultura aldatu dute. Adin batetik gorakoentzat exhibizionismo-ariketa hutsala da. Gazte asko eta askorentzat, munduan presentzia edukitzeko oinarrizko irudi-mota.



GORPUTZ BIRTUALIZATUA

Tatuajeak. Ile tindatuak. Gimnasio-ordu askoren ondoren markatutako giharrak. Piercing berria. Gorputzak norberaren borondatez jasan duen edozein aldaketa eskaparate digitaletan erakusten da. Etekina atara behar zaiolako: ehunka bihotz Instagramen, zoramena Tinderreko harmailetan. Baina gorputza, organismo bizidun hori, zerbait birtuala bihurtzen da argazkien filtroetatik pasatzean eta fisikoki inoiz ezagutze-ira iritsiko ez garen pertsonen begietan. Ezarritako kanonen antza eduki behar duen *avatar* bat. Gorputza, organismo bizidun hori, zahartzen eta kanon horietatik urruntzen tematzen da. Eta gaitzerdi.



TELEBISTAKO PLATO BAT LOGELAN

Atzean agertuko dena dekoratzen lan handirik hartu gabe, youtube-rra kameraren aurrean jarri da bere milioika jarraitzaileen aurrean hitz egiteko. Lehen ezinezkoa zen hau: publiko hain masiboetara iristeko ikus-entzunezko produkzio oso garestiak behar ziren, ikusgarria izango zen programa batek artifizio asko eskatzen zuen. Orain ez: webcam bat eta gain-antzeppen pila bat aski dira telebista konbentzionalak baino ikusle gehiago harrapatzeko. Ez dago gaizki: telezaborrak alfer-alferrik zenbat diru irensten duen frogatzen du enpirikoki. Baina, bestetik, edozein etxetako logela bihurtu da orain telezaborra ekoizteko plato bat.

Pantailak eta merkatu “librea” integratuta dauzkagu

Beste arrazoi batzuk ere badaude pantailekin berehala mundu guztiak sentitu duen atxikimendua esplikatzen. Telefono mugikor adimendunak, tablet-ak eta antzeko beste trepetak guztiak pentsatuta daude eredu ekonomiko berriak gizakiari eskatzen dion etengabeko mugimenduan egoki txertatzeko. Ordenagailua ez bezala –hau ere geroz eta arin eta eramangarriagoa bada ere–, telefonoa beti eduki dezakezu eskura, gorputzetik gertu, zure izate fisikoaren hedapen digital




GORPUTZAK ETA GAILU DIGITALAK KONEKTATUTA, ETENGABE DATUAK EKOIZTEN: LAGUNEKIN HITZ EGITEAN, KIROLA EGITEAN, MUSIKA ENTZUTEAN... ONGI ETORRI BIOHIPERMEDIARA

bihurturik. Ordenagailuan, oraindik, gure identitate digitalaren alde arrazionala da nagusi. Telefonoan emozioek leku handiagoa dute, bizitzako edozein unetan, etxean bezainbeste –edo gehiago– kanpoan, erabilgarri dagoelako. Sare globalera uneoro konektatuta egoteko aukerak transformazio antropologiko sakona eragin du jada, segur aski atzera bueltarik ez duena. Eraldaketa unibertala da,

telefonía mugikorra munduko ia leku guztietara iritsi baita batera. Eta arretaren bestelako kontzeptu bat eragin du, estimulu kognitiboen gainproduktzioaren aroan ondasun eskasa bihurtu delako zerbaiti kasu egiteko denbora. Espazio soziala ere erabat konprimitu da pantailen munduan: edozein tokitan dagoen edonorekin bat-bateko komunikazioa normaldu denez, orain arteko gertutasunaren kontzeptua beste betaurreko batzuekin begiratu behar da, des-lurraltze prozesu bat bizitzen ari ote garen galdetuz; baita zerk iraun dezakeen aurretik geneuzkan harreman eta ekoizpen-ereduetatik ere.


Pantailez inguratuta gaudela esan ohi dugu. Agian, bizi duguna esplikatzen, zehatzagoa da esatea pantailak gorputzetan integratuta dauzkagula. Alegia, teknologia jada ez dela bitarteko bat bakarrik, kanpoan dagoen zerbait; ukiezintzat genituen harresiak puskatu dituela, materia bizi izatera pasa dela. “Biohipermedia” deitzen dio horri Griziottik: gorputzak hipertestuekin eta beste medio digitalekin bat eginda osatzen duten egunerokotasun berria.

Paradigma aldaketa hori ez da hutsaren gainean eraiki, kapitalismo neoliberalak ezarritako zoru gainean baizik. Horrek esplikatu dezake zergatik diren diren bezalakoak azken hamarkadetan hedapen batean dauden zenbait enpresa. Merkatu librearen fundamentalismoak⁶ gidatuta pentsatu dira industria digital berriak, erregulazio falta ia



⁶ Horrela definitu zuen neoliberalismoa Joseph Stiglitz Ekonomiaren Nobel saridunak.





erabatekoan oinarrituta eta aurreko eredu produktiboak langileei ematen zizkien zenbait berme –kontratu egonkorrak, lan-ordutegi zehaztuak...– zaharkitutako postal gisa ulertuz. Horien ordez “hierarkiarik gabe” lan egiteko askatasuna nabarmentzen zaio lan-indar berria jartzen duenari. Eta amets bat saltzen zaio: noizbait arrakasta izango duen *startup* baten sortzaile izango dela, aberastuko dela eta bere karreraren gailurretik kontatu ahal izango duela, Bill Gatesek edo Steve Jobsek kontatu zuten moduan, dena etxeko garajejan hasi zela, ideia jenial batek abiatuta.

Gehiengoaren patua, ordea, esplotazio-baldintzen biderkatzea da. Hierarkia baten menpe ez egotea askatasun gisa uler daiteke, bakarrik kontuan hartzen ez badira beste exigentzia batzuk: bankuenak, bezeroenak eta zergak kobratzen dituzten administrazio publikoenak, adibidez. Baliteke fabrika fordistan enpresako nagusiak ezartzen zuen kontrola gaur egun nagusitzen ari den ereduaren desagertu edo apaldu izana –antolakuntza bertikala duten enpresetan ere, garaiaren espirituak kudeatzaile “lagunkoiak” eskatzen ditu, langileak motibatzen dituzten ekintzaile energiko eta osasuntsuak–; horrek ez du esan nahi, ordea, ekoizpen-harremanak aldatu direnik, langileen koopera-

zioa lortzeko bideak orain diferentek direla baizik.

Gainontzean, denak berdin jarraitzen du. Edo okerrago: ez dago lan-orduentsat mugarik eta emaitza oso soldata baxua da. Noiz garen enplegatuek, noiz kontsumitzaileak eta noiz herritarrak desberdintzen ez dugunez, funtsean dena egiten dugu lanean ariko bagina bezala,



**HIERARKIARIK GABEKO LAN
“MALGUAK” MAITE DITU
EREDU BERRIAK. BAINA
GAINETIK NAGUSIRIK EZ
EGOTEAK EZ DU ESAN NAHI
LIBRE GARENIK, ZUZENEAN
MERTATUAREN PRESIOPEAN
GAUDELA BAIZIK**

etekina erdigunean jarriz. Pantailak bakarrik ez, merkatu librearen ere integratu dugu gure subjektibitatean eta haren arabera ezartzen dira harreman sozialak, politikoak eta ekonomikoak, baita portaera indibidualak ere. Logika hori nagusi den unetik, fabrikako nagusiaren mehatxua desagertu daiteke, dagoeneko ez baita beharrezkoa. Felix Klopotekek-lehenago aipatu dugun

La sociedad del rendimiento (Errendimenduaren gizartea, Katakarak, 2018) liburuan dioen moduan, enpresa hierarkikoan langileak oraindik askatasun-espazioak sortzeko aukera dauka, trikimailuen bidez lan gutxiago egin eta berdina kobratuz hilaren amaierara iristeko. “Askatasun espazio horiek desagertu egiten dira mugak lausotzen diren lekuetan eta hierarkiarik ez dagoenez, norbera zuzenean jainkoaren aurrean aurkitzen da –alegia, irabazien bortxaren aurrean–”.

Ereduak dituen inplikazioak kezkarriak dira: kanpoko agintezuzenik ez dagoenez, ekoizpen-sistema digitalak “giroan” dagoen merkatu-presioaren bidez bultzatzen ditu langileak produktiboak izatera eta, horrenbestez, oso zaila da lan-indarra saltzera derrigortuta daudenen autonomia-espazioak sortzea. Zer den autonomia eta zer heteronomia bereiztea bezain zaila. Geroz eta gutxiago entzuten dira goitik datozen aginduak, produkzio planifikazioak, lan-jardunaldi zehatzak. Norberak antolatu behar du. Nork bere buruari helburuak jarri. Eta zehazgabetasun horretan murgilduta, karga morala ere agertzen da: “Ez dut nahikoa egiten”. Zama psikologiko hori belaunaldi prekario berriaren ezaugarrietako bat da, denbora faltaren eta bizi-ibilbide fragmentatuen osagarri.

Mundua interfaze bihurtuta

Lan mundutik harago ere sumatzen dira neurokapitalismoaren efektuak. Horietako batzuk aztertu ditu Ingrid Guardiolak *L'ull i la navalla* saiakeran (Begia eta labana, Arcàdia, 2018). Besteak beste, gaur egungo munduan irudiek, espazioek eta denborek jasan dituzten transformazioak aztertu ditu berriki Serra d'Or saria irabazi duen liburuan. Guardiolararen arabera, denbora biologiko eta kronologiko batetik denbora kronoskopikora pasa gara: pantailen aurrean pasatzen ditugun orduak markatutako denbora eta mundu batera, non interfaze, birtualtasun edo tele-errealitate bezalako kontzeptuak pantailetatik mundu fisikora salto egin duten.

Dagoeneko ez dugu munduarekin lan egiten, haren kopia birtual batekin baizik, dio Gironako ikerlariak liburuko pasarte batean. Dena bihurtu baita interfaze, gure gorputzetatik hasita: edozein gazte kirolarik Instagramen edo Tinderren bere abdominal landuak erakusten ditu eta plataforma horien bidez ikus dezakeen jende kopurua askoz handiagoa da fisikoki berarekin erlazionatu daitekeena baino. Eskala berri batean gertatzen dira harremanak. Eta nolakotasun diferente batean: bai/ez dikotomian laburbiltzen da pertsona bati pantailen bidez esan diezaioketuna: atsegin dut / ez dut atsegin; argazkia begiratzen geratzen naiz / beherantz *scroll* egiten dut. Eta bakoitzak bere gailuan egiten duen azken keinu horrek, pantailan ikusten ditugun gu bezalako pertsonenganako destina adierazten du.

Destaina, indiferentzia, interes falta... telefonoan ikusten ditugun gauza gehienaren aurrean *scroll*

egitea da keinu ohikoena. Ehiztari-biltzaile berriak bagina bezala, elikagai kognitibo pizgarrien bila gabiltza, zer xerkatzen dugun oso ondo ez dakigun arren –izan ere, esfortzua gaur egun ez da desiatzen duguna lortzeko bakarrik egiten; zer desiatzen dugun jakiteko ere ahalegin handia egin behar da, hiper-eskaintzaren erruz-. Bilaketa horretan, gehiegikeriak deitzen du gure arreta: politikari baten tonutik kanpoko adierazpenak, inpaktua eragiten duten irudiek, haserretzen gaituzten gauzek. Egoera emozional konkretu batzuk probokatzen dituzten tresnak ere badira sareak, izan ere, haietan ikusitako zerbaiten aurrean erreakzionatzen dugun bakoitzean, kapitalismo psikikoaren makineria aktibatzen da. Eta frogatuta dago sentimendu negatiboek klik gehiago eragiten dituztela eta, beraz, datu gehiago. “Dagoeneko

posthumanismo batean murgilduta al gaude, zeinean algoritmoak, desioak eta afektuak erabat konektatuta dauden?”, galdetzen du Griziotik lehenago aipatu dugun liburuan. “Eta hala bada, ze etika sortzen da hortik?”.

Ez da eredu produktiboa bakarrik. Ez dira birtualizatutako giza-harremanak edo datuak sortzera bultzatzen gaituzten tresnak eta aplikazioak soilik: neurokapitalismoak bizi garen lekuak ere eraldatu ditu dagoeneko. Hiriak interfaze dinamiko bihurtzen ari dira, turismoa praktikatzeko dutenek errazago nabigatu ditzaten. Horren erakusgarrietako bat izan daiteke Gasteizko Andra Mari Zuriaren plazan dagoen hiriaren izen begetala: “Gasteiz marka” ikusgarri egiteko interbentzio hori nekez ulertzen da irudien hiper-produkzioaren garaioan identifikagarri bihurtzeko



ZARATEMAN

KALEAREN BIRTUALIZAZIOA. HIRIAK INTERFAZE NABIGAGARRI BIHURTZEN ARI DIRA. ESKAINTZA TURISTIKO MASIBOAN IDENTIFIKAGARRI BIHURTZEKO LASTERKETA DA.

ahalegin desesperatu gisa ez bada – Donostiak eta Bilbok korrika imitatu zuten smakizuna, hiriaren izena landareekin osatu gabe, hori bai–.

Espazioen birtualizazioak beste inplikazio batzuk ere baditu: Airbnb bezalako plataformen eraginez, etxebizitzak ondasun materialak izan ordez, esperientziak bizitzeko lekuak balira bezala agertzen dira. Iritsi, erabili, utzi. Eta horrela ezin da leku horri buruzko narrati- ba sendorik eraiki, maizter egonkor samarrak dauzkaten etxeekin bezala. Habitatzen ditugun tokiak ere bide beretik doaz, Guardiolak oso



**LANA ETA BIZITZA
BEREIZTEN EZ DIRENEZ,
DENA EGITEN DUGU LANEAN
ARIKO BAGINA BEZALA.
NEUROKAPITALISMOAK
POSTAL ZAHARKITU GISA
IKUSTEN DITU ORDUTEGI ETA
KONTRATU EGONKORRAK**


modu finean nabarmentzen duenez: norberaren gela ere, duela gutxi arte babesleku pertsonala zena, ni-aren ehizarako eremu bihurtu baita: “Kamera geldirik dago, kliskatzeko ere harrituegi legokeen begia bezala, subjektuak bere gela eta bere intimitatea erakusten duen bitartean, kamerari esaten dizkion monologoaren erretorikarekin. Gelak eta subjektuak, espazioak eta ni-ak, kontakizun birtual bat partekatzen dute. Intimitatea eszenaratze bihurtzen da, *fake* bat”. Eta

horrenbestez, apenas geratzen den bakoitza bere buruarekin egoteko espaziorik ere.

Zer egin gure bizitzaren azken iskinaraino sartzen den eredu teknoekonomiko honen aurrean? Lehen urratsa egoeraren kontzientzia hartzea da: jakin behar genuke zer arrisku dauzkagun pertsonak izateari uzten diogunean, “prosumitzaile” edo *voyeur* bihurtzeko. Konturatu behar genuke pantailen aurrean pasatzen dugun denbora guztia kentzen ari garela pentsatzeari, elkarrekin egoteari eta proiektu amankomunak martxan jartzeari. Eta jabetu behar genuke tresna digitalek gaur egungo ekoizpen harremanen baitan erakusten dituzten mugak zenbaterainokoak diren: FAANG enpresak⁷ nagusi diren sarean, ia denok doan lan egiten dugu haienez, kontzienteki edo ez; eta hori egitean, gure bizitza antolatzeke boterea ematen diegu enpresa pribatu horiei, izan ere, ematen dizkiegun datu guztiak aztertuz eta sailkatuz, munduko populazioa inoiz baino administragarriagoa bihurtu da.

Deskonektatzea da aukera bakarra? Edo erabiltzen ditugun teknologiek jarrera kritikoagoa edukiz gero gauzak beste era batera egingo genituzke? Beharbada interneten hastapenetako espiritua berreskuratu behar dugu: mundu guztiari oparotasuna eskaintzen zion kontinente digital hartara itzuli, non elkatrue libre eta norberaren jakintzak besteekin partekatzeko aukera berriak eskaintzen ziren, multinazionalen ustiapen-logika hainbeste hedatu baino lehen. Komunitateen internet hura, diruan eta fama biralean baino, kolaborazioan oinarritutako mundu bat nolakoa izango zen irudikatzeko aukera eman ziguna. ●

⁷ Facebook, Amazon, Apple, Netflix eta Google multinazional teknologikoen nagusitasun egoera laburbiltzeko erabili ohi da akronimo hori.





PAPE NIANG HASIERA BERRI BAT

Mikel Garcia Idiakez

LIBURUAREN AURKEZPENAK

Solasaldirako aukera izango da

🕒 Ekainak 5, 19:00

📍 **BILBO**ko Bira Kultur Gunea

👤 Pape Niang, Mikel Garcia eta
Marta Abiega (*Bizkaia Harrera Sarea*)

🕒 Ekainak 6, 19:00

📍 **TRINTXERPE**ko liburutegia

👤 Pape Niang eta Mikel Garcia

Amul been nri ku leegaki!



 **ARGIA**

LIBURUA
SALGAI!
14€

EROSI HEMEN: AZOKA.ARGIA.EUS

